

<< Arkeologia-ondarea >>

Jesus Altuna

Área 1- Patrimonio Cultural

1. Arloa- Kultura Ondarea

Febrero, 2003ko otsaila

ARKEOLOGIA-ONDAREA (2002)

Aurkibidea

0. Sarrera
1. Aurrekariak
2. Nazioarteko erreferentzia-ereduak
 - a. Europako kontseiluaren hitzarmenak
 - b. Espainia
 - c. Italia
 - d. Alemania
 - e. Frantzia
 - f. Suitza
3. Gaur egungo egoeraren diagnostikoa
 - a. Euskal Kulturaren Ondarearen legea
 - b. Kultura Ondarearen Zentroa
 - c. Ikerketa-zentroak eta argitalpenak
 - d. Lurralde historikoen legea
4. Helburuak eta lehentasunak
 - a. Kudeaketa arkeologikoa
 - b. Esku-hartze arkeologikoa
 - c. Emaitzak hedatzea
5. Lerro estrategikoak eta egin beharreko proiektuak
 - a. Ildo estrategikoak
 - b. Proiektuak
 - Arkeologia Museo Nazionala
 - Lekuko museoak
 - Megalitoen seinaleztatzea
6. Bibliografia

Sarrera

Ondare terminoa herri latindarren terminoa da eta honako hau adierazten du: oinordetzan hartutako *aitaren ondarea* eta guk, era berean, gure ondorengoei transmititzen dieguna, familiaren jarraipena ziurtatzeko. Hau da, gurasoengandik jasotzen duguna eta guk, aldi berean, gure seme-alabei transmititzen dieguna.

Jatorrian eta zentzu hertsian, arbasoengandik oinordetzan jasotako ondasunak dira, objektu materialak, hala nola, arrea, etxebizitza edo lursail bat, norberaren jarauntsiari dagozkionak, batik bat.

Baina kontzeptua espiritu-izaera duten ondasunetaraino zabaltzen da, adibidez, eskubideak eta betebeharrak. Eta gaur egun, zentzu antropologikoan, historia-ondareari eta kultura-ondareari buruz hitz egiten dugu. Horren bidez, guztiona den jarauntsia adierazi nahi da, herri jakin batena edo gizateria osoarena. Horrenbestez, UNESCOk kalitate berezia duten kultura-ondasun batzuk gizateriaren ondare izendatu ditu. Ondasun horiek gure arbasoengandik jasotakoak dira eta gizateriak haiek babestu eta ondorengoei transmititu behar dizkie.

Jarauntsi edo herentzia horretan natura-ondareak ere parte hartzen du gaur egun, hau da, naturatik jasotako ondasunak eta transmititu behar ditugunak. Hori dela eta, balio natural jakin batzuk defendatzeko nazioarteko mugimendua sortu da, adibidez, Antartida defendatzeko, jasotako herentzia zaindu eta transmititu egin behar dugula aldarrikatzen duena.

- Gaur egun, ondarearen kontzeptua hainbat zibilizaziotara zabaldu da, besteak beste,
- -gure nortasuna han kausitzen dugulako eta
 - -hauskor ikusten dugulako, erraz galtzeko, hondatzeko edo nahaspilatzeke arriskuarekin

Horrenbestez, ondareak balio sozial handia lortu du eta zenbait adar ditu: kulturala, ekonomikoa, turistikoa, etab. Hori guztia gizartearen zerbitzura jar daiteke hezkuntza kulturala sustatzeko eta hartaz gozatzeko. Horregatik hitz egiten da gaur egun hainbeste kultura-baliabideei buruz.

Arkeologia-ondareak kultura-ondarearen zati berezi bat osatzen du. Balio historikoko ondasun higigarriak eta higiezinek osatzen dute. Arkeologia-ondareak berezitasun bat dauka: hura ezagutzeko, metodologia eta teknika bereziak erabili behar dira, eta horiek guztiek diziplina historikoa osatzen dute. Hori da, hain zuzen, arkeologia.

Ondare horrek iraganeko gizakia etorkizunekoarekin lotzen du. Bizitzak aurrera egin dezan, belaunaldi bat bestearekin lotzen duen ondarea da. Eta hori ondare hori osatzen duten objektuek pertsonak baino gehiago iraun dezaketelako, historia materializatua osatuz. J. Ballartek eta J. Juan-Tresserras-ek (2001) diotenez, kulturari eta zibilizazionarioari, jarduerari eta ohiturei eta sinismenei eta errituei buruz hitz egiten du historia materializatu horrek. Ordeztu ezinezko ikerketa-objektua da arkeologo, antropologo, historialari eta beste zientzialari batzuentzat, iraganerako ate gisa erabil baitaiteke, idatzitako memoria eta historiarekin batera, horrelakorik baldin badago. Haienez eta gainerako izaki guztiontzat, ondarea inspirazio-iturri da, irakasgaien laburpena eta emozio zolien katalizatzailea.

Andrea Carandini-k (1997) dioenez, "iragana aniztasunaren eta kuriositatearen iturria da, eta gure bizitza oso bestelakoa egiten du eta modu atseginean ateratzen gaitu gure ohituretatik. Historia gure buru-orekaren parte da... Garunak oroimenak behar baditu funtzionatzeko, (gure lurra) gure herriek oroimenean espazioaren bat gorde behar dute nola-hala".

1. AURREKARIAK

‘Arkeologia-ondarea’ espresioa UNESCOren 1956ko Gomendioan agertzen da lehenengo aldiz. Gomendio horretan zehazten dira *indusketa arkeologikoetan aplikatu behar diren nazioarteko printzipioak*.

Interesgarria da hemen aipatzea J. M. Barandiaranek 1947an Ikuska aldizkarirako (berak sortua erbestean) idatzi zuena: “Ezinbestekoa da erakunde ofizialek historiaurreko monumentuak babesteko eta zaintzeko interesa izatea, artxibo oso baliagarriak baitira. Monumentu horiek herrien erlikiak dira, orain dela hainbat urte desagertutako kulturaren oihartzunak transmititzen dizkiguten elementu bakarrak. Horri dagokionez –dio Barandiaranek–, monumentu dira historiaurreko aztarnak gordetzen dituzten aztarnategi guztiak. Monumentu horiek babesteko direla ziurtatu behar da, haietarako sarbidea arautu eta haien esplorazio metodikoa eta produktuen etorkizuna zaindu”. Orain dela 55 urte egindako dei hori, erabat modernoa da.

1956tik, UNESCOk lehen aipatutako gomendioa argitaratu zuenetik, erakunde beraren, Europako kontseiluaren eta Europako Batasunaren nazioarteko zenbait dokumentu agertu dira.

UNESCOren beste gomendio hauek ere azpimarratu behar dira:

- Kultura-ondasunen legez kanpoko esportazioa eta inportazioa eta transferentzia debekatzeko eta saihesteko neurriei buruzkoa, 1964an onartua.
- Lan publikoek edo pribatuek arriskuan jar ditzaketen kultura-ondasunak gordetzeari buruzkoa, 1968an onartua.
- Arkeologia-ondarea babesteari eta kudeatzeari buruzkoa (Lausana, 1990)

Europako Kontseiluari dagokionez, hauek dira aipatu beharrekoak:

- Arkeologia-ondarea babesteko Europako hitzarmena (Londres, 1969)
- Urpeko kultura-ondarea babesteko Europako hitzarmena (Estrasburgo, 1985)
- Arkeologia-ondarea babesteari eta balioa emateari buruzko gomendioa, hiriko eta landako hirigintzako eragiketen testuinguruan (Estrasburgo, 1989)
- Europako arkeologia-ondarea babesteko Europako hitzarmena (La Valette, 1992)

Europako Batasunari dagokionez,

- Europako Erkidegoko arkitektura eta arkeologia-ondarearen kontserbazioari buruzko Europako Parlamentuko erabakia (1988)
- Kultura-ondasunak esportatzeari buruzko Kontseiluaren araudia (1992)

Gomendio eta erabaki horietatik bi hauek azpimarratu behar dira: Londresko 1969ko Europako hitzarmena eta Maltako 1992ko haren eguneratzea eta osaera dena eta geroago aipatuko duguna.

Euskal Herrian eta Gernikako 1979ko Estatutuaren aurretik, 1933-05-13ko Legea zegoen indarrean. Lege horrek ondare historiko-artistikoa babesteko, kontserbatzeko eta zabaltzeko eskumena Estatuari ematen zion, eta ondare horretan material arkeologikoak sartzen ziren. Dena den, Estatuaren jokoerak gabezia garrantzitsuak izan zituen eta gabezia horiek, neurri batean, herrietako erakundeek, elkarte pribatuek eta partikularrek bete zituzten. Horren adibide gisa, nahikoa da honako hau esatea: Gernikako Estatutuaren ondoren eskumenak esleitutakoan, 3 aztarnategik bakarrik zuten monumentu-kategoria. Adierazpen horiek ez zuten justifikazio-baloraziorik eta ez zegoen inolako babes-erregimen partikularrik (Estrade, 2002).

Gaur egun, ia 5.000 aztarnategi daude, hiru kategoriatan banatuta:

- Eremu arkeologiko kalifikatuak
- Eremu arkeologiko inbentariatuak
- Ustezko eremu arkeologikoak

Arkeologia-ondare edo material higiezinari dagokienez, Gasteizko Arkeologia Museoan hala-moduz zeuden gordeta, Bilboko Historia museoan pilotuta zeuden (sic) eta Gipuzkoan erabat galtzetik salbatu ziren, Aranzadi Zientzia Elkarteko Historiaurreko Sailari esker. Elkarte horrek Aldundiko sotoetatik jaso zituen 1947an eta gaur arte gorde ditu, nahiz eta 1983ko urria arte ez jaso horretarako diru-laguntzarik.

Gaur egun Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak erabakitzen du zein izango diren Gordailu Zentroak eta inbentariatze-lan handia egiten ari dira. Lan hori aipatu sailak finantzatzen du.

Ikus daitekeenez, begirunea erabatekoa da.

1981ean eskumenak eskuz aldatu ziren eta bi urte geroago Lurralde Historikoen Legea onartu zen. Horrek eskumenen banaketa berria ekarri zuen.

Azkenik, 1990eko uztailaren 3an, Euskal Kulturaren Ondarearen Legea onartu zen. Lege horrek beharrezko tresnak ematen dizkio Euskal Autonomia Erkidegoari arkeologia-ondarea behar bezala kudeatzeko.

2. NAZIOARTEKO ERREFERENTZIA-EREDUAK

Atal honetan, Londresko Hitzarmena (1969) eta Europako Kontseiluaren La Valette-koa (1992) (aurreko atalean aipatuak) azalduko ditugu, baita horiei atxiki zitzaizkien Kontseiluko estatuak ere. Guk bigarrenetan sakonduko dugu, Londreskoa nabarmen jaso eta osatzen baitu. 1969 eta 1992 bitartean zeuden egoerak aztertuko ditugu. Izan ere, 23 urteko alde hori ez zen alferrik igaro.

Hitzaurrearekin hasten da eta hor, batetik, Arkeologia Ondareak (AO) zibilizazioen iragana ezagutzeko funtsezko elementu gisa duen garrantzia aipatzen da, eta, bestetik, ondareak gaur egun duen arriskua bizitza modernoaren hainbat faktorerengatik. Horregatik adierazten da ondarea babesteko erantzukizuna zuzenean dagokion estatuarena ez ezik (gure kasuan autonomia-erkidegoa), Europako herrialde guztiena ere badela, horren bidez degradazio-arriskua gutxitzeko eta kontserbazioa sustatzeko. Hitzaurrea amaitutakoan, artikuluekin hasten da.

Lehenengoan, hitzarmenaren helburuari buruz hitz egiten da. Helburua AO babestea da, Europako memoria kolektiboaren iturri gisa eta azterketa historiko eta zientifikorako tresna gisa. Behin eta berriz zehazten da babes horretan ez direla aztarnategiak bakarrik sartzen, bere ingurune naturala ere sartzen dela adierazten da.

2. eta 4. artikuluetan, ondarearen identifikazioa eta babes-neurriak aipatzen dira.

Horretarako, AOaren inbentarioen kudeaketari eta babestutako eremuen sailkapenari buruz hitz egiten da, bi alderdi horien eguneratzea eta aztarnategien kartografia egokia egitea azpimarratuz.

Era berean, erreserba arkeologikoko eremu bihurtuko diren eremuak eskuratzea edo babestea proposatzen da artikuluko horietan (etorkizuneko belaunaldiak induska ditzaten, Londresko hitzarmenak zioen gisa).

5. artikuluan arkeologoek lurralde-antolamendurako politiketan parte hartzea aipatzen da, parte-hartze horren bidez erakunde planifikatzaileekiko lankidetzaz ziurtatzeko eta ingurumen-inpaktuen azterketa guztiek aztarnategiak eta haien testuingurua kontuan hartzeko.

6. artikulua ikerketaren finantzazioari eta ondorengo kontserbazioari buruzkoa da. 7.a eta 8.a, informazio zientifikoa hedatzeari buruzkoa, eta 9.a, publikoa AOaren balioaz eta haren hauskortasunaz jabetzeari buruzkoa. Jabetze hori hezkuntza-ekintzen bidez egin behar da, elementu garrantzitsuak eskura jarri eta erakutsiz.

Ondoren, AOaren elementuen lege kanpoko zirkulazioa saihesteari buruzko artikulua dagoz. Horietan, ondasun susmagarriak eskura ez daitezkeen, museoak eta antzeko zentroak kontrolatzeko beharra azpimarratzen da. Horrela, ondasun horiek ahalik eta gutxien mugituko dira hezkuntza-ekintzaren, informazioaren, zaintzaren eta lankidetzaren bidez. Amaieran, Europako Kontseiluko estatuei hitzarmena sinatzeko eta sinadura horiei eta haien berrespenari buruz hausnarketa egiteko gonbita egiten zaie.

Laburbilduz, La Valette-ko Hitzarmenak alderdi berriak gehitzen dizkio Londreskoari, adibidez, aztarnategien kontserbazio integrala, ikerketa arkeologikoaren helburuak, aztarnategien testuinguruaren garrantzia (ingurune naturala) eta lurralde-planteamenduak haiek babesteko duen egitekoa. Lerro orokor horiek, noski, hitzarmena berresten duten herrialdeen legerian garatzen eta zehazten dira.

Hitzarmena Europako 25 herrialdetan sinatu, berretsi eta jarri da indarrean. Horien artean hauek daude: Frantzia, Suitza, Portugal, Erresuma Batua, Irlanda, Suedia, Norvegia, Finlandia, Txekia, Polonia eta Turkia.

Gaur arte, besteak beste, Espainiak, Alemaniak eta Italiak sinatu dute hitzarmena, baina ez dute berretsi. Herrialde horiek jarri zuten indarrean eta berretsi zuten Londreskoa. Lehengo Alemania Federalean Berlin W-n ere aplikatu zen.

Aipatutako lehen 11 herrialdeek La Valette-ko Hitzarmena berretsi eta indarrean jarri dutenez, aurrena azken hirurak aztertuko ditugu, Espainia, Italia eta Alemania, horiek sinatu bai, baina oraindik ez baitute berretsi.

Espainian, AOaren kudeaketa 1985eko *Espainiako Historia Ondareari buruzko* legeak arautzen du.

Hor lau ondare-mota definitzen eta azaltzen dira. Horietako bat arkeologikoa da eta hori, aldi berean, AO higigarri eta higiezinetan banatzen da. Ondasun guztiak babestea defendatzen du, jabetza kontuan hartu gabe (adibidez, hainbat museotakoak, elizakoak, etab.), baita oraindik aurkitu ez direnak ere.

Hiru maila ezartzen ditu ondasun higigarrientzat eta bi higiezinentzat, betiere, ondasunaren kalitatearen arabera. Ondasun higiezinaren tipologia egiten du, eta hor eremu arkeologikoak ere sartzen dira. Autonomia-erkidegoen arteko eskumenen banaketa ere aztertzen du¹. Informazio gehiago eskuratzeko eta lege autonomikoen berri izateko, ikus Querol & Martínez Diaz (1996).

Italian, arkeologiaren egoera oso bestelakoa da. Eskumen osoa *Ministero per i Beni Culturali e ambientali* ministerioak du (Sizilia eta Aostako Harana eskualde autonomoetan izan ezik), eta espainiar estatuaren egituraren aldean oso desberdina da. Espainian, eskumena autonomiek dute eta babestu eta kudeatu behar denarengandik hurbilago daude.

Espainiar estatuko legearen heterogeneotasunarekin alderatuz, Italian Estatu Zentralak koordinatzen ditu AOaren inbentarioa eta hori bezalako alderdi garrantzitsuak (*Istituto Centrale per il Catalogo e la Documentazione*).

Beste desberdintasun bat ere badago, Italiako ingurune arkeologikoen espiritu kritikoa, hain zuzen ere. Horrek eztabaida zientifiko aberatsa sortzen du, baina sarritan kritikarako joera hori (hain positiboa arlo zientifikoetan) faktore negatibo bihurtzen da alderdi praktikoei edo antolamenduari buruzkoa denean.

Alemanian, egitura federalaren ondorioz, landak (estatu federalak) arduratzen dira kultura-arloko legeetaz. Land bakoitzak bere babes-legea (*Denkmalschutzgesetz*) ezartzen du eta horrek AOaren kudeaketaren oinarria osatzen du. Gaur egun, beraz, 16 lege daude, land bakoitzeko bat.

Lege horiek aztarnategi arkeologikoa zer den zehazten dute (*archäologisches Denkmal*) eta, neurri batean, baita aztarnategi paleontologikoa zer den² ere. Aztarnategi bakoitzaren estatusa adierazteko prozedura ere zehazten dute eta AO babesteaz arduratzen den erakundeari lurralde-antolamenduko proiektu guztietan eragiteko ahalmena ematen diote.

Laburbilduz, lege horiek honako hau zehazten dute:

- Aztarnategien eta horko materialen prospekzioa, aurkitzea eta inbentariatzea
- Merezi duten aztarnategien kontserbazioa
- 'Maila handiagoko interesak' direla-eta kontserbatu ezin diren aztarnategien larrialdiko ikerketa
- Ikerketa horien emaitzak argitaratzea

¹ Lege horrek autonomien eskumena murrizten zuen eta konstituzio-kontrakotasuneko helegitea ezarri zitzaion. Auzitegi Konstituzionalak helegitearen aldeko erabakia hartu zuen 1991n. AKren erabakiaren aurretik, 1990ean, Euskal Kulturaren Ondarearen Legea onartu zen, aurrekarietan esan dugunez.

² 1990eko euskal legeak ere kontuan hartzen du ondare paleontologikoaren babesa, eta hori ez dute kontuan hartzen ondareari buruzko lege gehienek, dela estatukoak, dela estatutik kanpokoak.

Arkeologoak ere (*Landesarchöologen*) lanean ari dira hainbat landetako AOaren kontserbatzaileekin batera (*Landeskonservatoren*). Guztiek xede bakarra dute: aztarnategiak eta hango materialak babestea. 1949an Arkeologoen Elkarte (Verband der Landesarchäologen) sortu zen, informazioa trukatzeko eta kultura-ondarea babestearekin lotutako jarduera elkarrekin ordezkatzeko. 1989an Alemania batu zenean, ekialdeko landak ere elkarte horretan sartu ziren. Estatutu berriek 60 kide aurreikusten dituzte (Bavariak, adibidez, 14 ditu). Elkarte horretan, landetako dagozkien sailtako/ministerioetako zuzendariak eta erakunde independenteen zuzendariak daude. Urtero egun osoko mahai-inguruak antolatzen dituzte – urtero land desberdin batean– gai hauen inguruan: babesa, ikerketa, argitaratzea eta AOari balioa ematea.

Kultura babesteari buruzko legeak betetzen ez dituenak 500.000 euro bitarteko isuna jasoko dezake. Informazio gehiago lortzeko, ikus Planck (1998)

Lehen hamaika herrialdeek La Valette-ko hitzarmena berrestek ez du esan nahi dena primeran doanik. AO babestearen ikuspuntutik, **Frantzia** berezitasun erabat deitoragarriak daude, eta, hala ere, bere horretan irauten dute, 'arkeologia prebentiboari' buruzko 2001eko 44 Legea indarrean egon arren. Lege horrek erregulatzen ditu hainbat lan direla-eta larrialdiko esku-hartzea behar duten kasuak.

Espainiar estatuan zorupea estatuarena da eta gure kasuan autonomia-erkidegoarena. Frantzia, ordea, azaleko lursailaren jabearena da. Hortaz, kobazuloen barnealdea, adibidez, ez da jabetza publikokoa, sarrera dagoen lursailaren jabearena baizik. Interes handiko kasuetan soilik ken dezake jabetza estatuak, adibidez, haitzuloetako santutegi garrantzitsuen kasuan. Gainerako kasuetan, jabearen esku gelditzen dira eta hark zehazten du bere xedea eta erabilera, maiz, turistikoa.

Aurkitutako material arkeologikoak, berriz, haien aurkitu diren lursailaren jabearenak dira. Lursailaren jabea ez den norbaitek ustekabean aurkikuntzaren bat egiten badu, objektuak aurkitu dituenaren eta lursailaren jabearen artean banatzen dira, 'inork ezin baitu haien jabetza justifikatu'. Estatuak erabakitako eta haren izenean egindako indusketen kasuan, objektuak lursailaren jabearen eta estatuaren artean banatzen dira (F. Barré, 1997). Sarritan, jabeak ikertzaileen esku uzten ditu denbora mugagabea eta, ondorioz, oso sakabanatuta daude. Objektu horietako asko museoetara eramaten dituzte, baina beste asko ez. Hori ikertzailearen edo jabearen borondatearen arabera dago. Nafarroa Behereko Isturitzeko aztarnategi ospetsu eta garrantzitsuko materialei dagokienez, adibidez, zati bat S. Germain-en-Laye-ko Antzinako Gauzen Museo Nazionalean egon da, beste bat Saint Périer kondeen eskuetan eta zati txiki bat Baionako Euskal Museon. Orain dela gutxi, Saint Périer-eko kondesak aipatu lehen museoari eman dio bere zatia, baina ez ematea ere erabaki zezakeen.

Bestetik, larrialdiko indusketen arloan, AFAN (*Association pour les fouilles archéologiques nationales*) erakunde ez ofiziala egon da ia orain arte. Status pribatua izan du, baina estatuarekin lotuta egon da hitzarmen baten bidez. Erakunde hori garrantzi handiagoa hartzen joan zen eta laguntzaile ia monopolista izatera iritsi zen, kontrolatzeko are zailagoa, baita estatuak berak ere. Ondorioetako bat kostuen etengabeko igoera zen; gainera, kalitate zientifikoa eta argitalpenak ez zeuden haien maila berean. Lehen aipatutako 2001eko 44 Legearen bidez, elkarte horren ondasunak, eskubideak eta betebeharrak estamentu publikoari itzuli zaizkio dekretuz zehaztutako baldintzetan.

Aitzitik, arkeologia frantsesa asko aurreratu da kalitateari eta teknikari dagokionez. Gauza bera esan behar da argitalpen zientifikoei dagokienez, eta ez bakarrik Paleolitoaren ikerketaren arlo tradizionalen bakarrik, baita historiaurrean ere zeramikarekin eta Erdi Aroko arkeologian ere.

Atal hau amaitzeko, **Suitza** aipatu nahi dugu, konfederazioa baita eta kantoiek autonomia handia baitute.

Kantoi bakoitzak bere legeria dauka, besteena ez bezalakoa. Kantoiek eskumen osoa dute kulturaren alorrean eta ondarearen kontrolean. Kantoiek izendatzen dituzte jarduerak arkeologikorako langileak. Bund-ak kantoiei finantziazio-alderdietan eta alderdi teknikoetan besterik ez die laguntzen. Horretarako, Bund-ak adituen gremio bat dauka (*Eidgenössische Kommission für Denkmalpflege*). Laguntza hori oso garrantzitsua da, kantoi txikietan, batik bat.

Bestetik, kantoiek hautatutako arkeologoek Suitzako Kantoietako Arkeologoen Elkartea (VSK: *Verband Schweizerischer Kantonsarchäologen*) eratzen dute. Han beren interesak defendatzen saiatzen dira agintaritzaren eta hirugarrenen aurrean. Horrenbestez, informazioa eta esperientziak trukatzeko dituzte.

Programatutako ikerketa arkeologikoa unibertsitateko erakundeek egiten dute batik bat. Kantoietako agintariak larrialdiko esku-hartzeko arkeologian soilik aritzen dira. Informazio gehiago lortzeko, ikus Bill (1998)

Atal hau amaitzeko, Maastrichteko Ituna (1992) aipatu behar da. Itun horretan, kulturari buruzko artikulua sartu zen, baina estatuek arlo horretan autonomia dutela zehaztu zen. Beraz, Europako Batasunak neurri periferiko batzuk soilik aplikatzeko eskumena du, adibidez, sustapen-programak.

3. GAUR EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Hasteko aipatu nahi dugu ezen, arkeologia-ondarearen kudeaketaren gaur egungo egoera Euskal Autonomia Erkidegoan benetan pozgarria dela. Izan ere, horri buruzko legea berria da eta ez du aurrekoetatik datozen eta gairatzen hain zailak diren akatsik, Europako beste lege batzuetan gertatzen den legez.

Horrela, Frantziari buruz aipatu dugunari kontrajarriz, azpimarratu nahi dugu Euskal Kulturaren Ondarearen 7/1990 legeak behin eta berriz aipatzen duela arkeologia-ondarea – higigarria zein higiezina– jabari publikokoa dela. Honako hau dio hitzez hitz 47. artikulua: “Autonomi Elkartearen lurralde-eremuan, ustekabeen nahiz horretarako arauz egindako lanaren ondorioz, aurkitutako paleontologi eta arkeologi interesgarritasuneko ondasunak herri-jaurgopekoak izango dira”.

Bestalde, lege horrek espainiar estatu modernoaren legerian lehenengo aldiz garatzen diren alderdi administratiboak ditu, zeren eta ez Estatuko Ondareari buruzko Legea (1985), ez Gaztela-Mantxakoa (1990) ez baitziren arduratu alderdi horietaz³.

³ Geroago, Andaluziako Legea (1991), Kataluniakoa (1993) eta Galiziakoa (1995) atera ziren.

Lege horrek beharrezko tresnak ematen dizkio euskal gizarteari arkeologia-ondarea behar bezala kudeatzeko. Besteak beste, alderdi hauek zehazten ditu:

- baimena behar izatea jarduera arkeologikoetarako
- lortutako materialen inbentarioa Eusko Jaurlaritzari emateko betebeharra
- Euskal Autonomia Erkidegoan aurkitutako ondasun arkeologikoak xede horretarako jarritako zentroetan gordetzeko betebeharra
- toki batetik bestera eramateko baimena behar izatea, etab.

Bestetik, legeak berak sortutako azpiegitura kulturala dugu: Kultura Ondarearen Zentroa. Neurri handi batean, zentro hori Foru Aldundiko ekimeneren koordinazioaren zailtasunei aurre egiteko sortu zen, legeak izaera deszentralizatzailea baitu. Izaera hori, ordea, puntu jakin batzuetan 1985eko Lurralde Historikoen Legea egokitzeko beharretik datorkio.

Legeak zentro horren esku uzten du Euskal Kulturaren Ondarearen (EKO) Kudeaketa eta horretarako funtzio batzuk ematen dizkio. Besteak beste, hauek azpimarratu behar dira:

- EKO osatzen duten ondasunak ezagutzea eta babestea; horren barruan AO sartzen da
- Ondasun Kalifikatuaren Erregistroaren antolakuntza eta hura eguneratuta edukitzea, eta EKOaren hainbat arlotako inbentario orokorra
- EKOan eragina izan dezaketen hiri-plangintza eta programak, proiektuak eta planak egitean, aldatzean, berrikustean eta onartzean esku-hartze aktiboa
- EKO ikertzeko eta zabaltzeko lana praktikan ipintzea argitalpenen, erakusketen eta beste administrazio eta erakunde publiko edo pribatuekin sinatutako itunen bidez
- EKO hobeto babesteko, aholkularitza eta laguntza ematea Eusko Jaurlaritzako, aldundietako eta udaletako sailei
- Publikoari informazioa ematea txosten irekien bidez. Txosten horiek pertsona hauek kontsulta ditzakete eta kontsultatu behar dituzte: lurralde-antolamenduko planak idazten dituztenek, azpiegitura-proiektuen sustatzaileek, ikertzaileek edo beste herritar batzuek.

Azken hamarkadan, Ondarearen Zentro horrek garapen nabarmena izan du eta horren lekuko dira, besteak beste, ekintza-lerroak. Lerro horiek EKO osoa hartzen dute kontuan, baina hemen arkeologia-ondareari buruzkoak aipatuko ditugu, txosten honen xedea horixe baita.

1. EKOaren katalogoak eta inbentarioak egitea. Beste edozein ekintza egin aurretik eman beharreko lehen urratsa da. Gaur egun, aztarnategien, ustezko eremu arkeologikoen eta beste material batzuen katalogo garrantzitsua dauka zentroak. Horrekin batera, aztarnategiak lokalizatzeko aukera ematen duen Informazio Geografikoaren Sistema bat garatu da.
2. EKO babestea. Babes hori hainbat elementuren balioa adieraziz egiten da. Horrela, ondare higiezinetan lehen aipatutako eta legeak ere aipatzen dituen hiru maila bereizten dira: a) Eremu arkeologiko kalifikatuak, b) Eremu arkeologiko inbentariatuak eta c) Ustezko eremu arkeologikoak.

3. Hirigintza eta lurralde-antolamendua kontrolatzea. Aipatu zentroan Euskal Autonomia Erkidegoko hirigintza-plangintzaren eta lurralde-antolamenduaren aldaketa guztiak aztertzen dira. Gero, txosten horiek Lurralde Antolamendurako Batzordera (EHLAB) eramaten dira eta hor ahots eta botoarekin parte hartzen da. Batzorde horrek txosten loteslea idazten du aldundiek plangintza behin-betiko onartu aurretik.
4. Orain dela gutxi, ondare higiezinaren Lurraldeko Plan Sektoriala (LPS) argitaratu da. Lurralde Antolamenduaren Artezpideetako kultura-ondareari buruzko atalean, Kultura Sailak plan hori idazteko beharra aipatzen da. Horretarako, kontserbatu behar diren ondasunen zerrenda zabala idatzi da (horien artean arkeologikoak zehatz-mehatz jasotzen dira). Halaber, ondasun bakoitzean nola esku hartu behar den zehazten duen araudia idatzi da. Plana bere osotasunean onartzea falta da.
5. Kulturarako % 1en kudeaketa . Aipatu 7/90 legeak zehazten du lan publikoen % 1 EKO kontserbatzeko, sustatzeko eta hari balioa emateko izango dela. Baliabide horiek Kultura Sailak kudeatzen ditu. Horretarako, 2000. urtean laguntzen araudi bat jarri zen martxan. Laguntza horien barruan, besteak beste, aztarnategi arkeologikoak dauden lursailen eskuratzea ere sartzen da.
6. Material arkeologikoen kudeaketa. Material arkeologikoen titulartasuna Eusko Jaurlaritzak duenez, hark babestu eta kontserbatu behar ditu. Horregatik, 7/90 legeak erantzukizunak eskatzen dizkio gobernuari, besteak beste:
 - Gordailu-zentroak eta -museoak izendatzea.
 - Hainbat helburutarako materialak batetik bestera eramateko baimena ematea
 - Material horien inbentarioa egitea
7. Hedapena. Hedapenaren bidez, batetik, gizartearen behar kulturei erantzuten zaie, eta, bestetik, gizartea kultura-ondarearen garrantziaz jabetzen da. Hedatze hori ekintza hauen bidez egiten da:
 - Web orri bat martxan jarritz. Horrek, besteak beste, ondasun kalifikatuen fitxetara sartzeko aukera ematen du
 - Katalogoak argitaratuz
 - Arkeoikuska argitaratuz. Hor Autonomia Erkidegoan aurreko urtean egindako ekintza arkeologiko guztien laburpena egiten da
8. Dokumentazio-zentroa. Ondarearen Zentroa EKOaren dokumentazio-zentro gisa aipatzen du behin eta berriz legeak. Hori dela eta, artxibo hauek garatu dira:
 - EKOaren irudien artxiboa
 - Liburutegia
 - Planoteka
 - Memoria eta Ikerketa arkeologikoen artxiboa

Etengabe aberasten ari diren dokumentu horiek guztiak informatizatzen ari dira eta publikoaren esku daude.

Gure ustez, Kultura Sailarekin izan dugun etengabeko harremanean oinarrituz eta hortik sortu diren Arkeologiaren Aholku Batzordeetan parte hartuz, esan beharra dago Ondarearen Zentroaren garapena erabat positiboa dela. Egindako lanak ezagutzen ditugu: hasieran apalak ziren; ondoren, heldutasun handikoak; eta orain, gero eta anbizio handiagoak.

Gizarteari begiratzen badiogu, eta gaur egun Euskal Herrian dauden Ondarearen Ikerketa Zentroetan jartzen badugu arreta, asko daudela ikusiko dugu, agian gehiegi, orain dela gutxi horiei buruz egindako lan batean (Altuna 1999) esan genuen bezala, kontuan hartuz hedadura geografikoa eta dituzten diru-baliabideak. Baina Euskal Herria administratiboki bost lurraldetan banatuta egoteak –Euskal Autonomia Erkidegoko hiru, Nafarroa eta Euskal Herri Kontinentala edo Iparraldea– ez du zentro horien kopurua gutxitzeko aukerarik ematen, lurralde historiko bakoitzaren barruan ez bada behintzat. Egia da, ordea, haien arteko koordinazioak edo lankidetzak sakabanatze horren kalteak arintzen dituela. Horrela, Aranzadi Zientzia Elkarteko Historiaurrearen Saileko Arkeozoologiako, Paleontologiako, Palinologiako, Sedimentologiako eta Zeramologiako laborategiek beste zentroek induskatutako materialen zatirik handiena analizatzen dute. Dena den, onartu behar dugu sakabanatze hori dela errealitatea.

Gauza bera esan dezakegu aldizkako argitalpenei buruz, esparru geografiko berean eta baliabide urriekin arkeologiari buruzko hamabi aldizkari argitaratzen baitira, arlo horretako artikulua jasotzen dituzten beste batzuek gain.

Beste puntu bat esku-hartze arkeologikoak dira, bai aurretiko proiektu zientifikoa duten programatutako indusketa sistematikoena, bai larrialdiko esku-hartzeena. Gure ustez, behar adina kontrolatu gabeko esku-hartze arkeologiko gehiegi daude, eta horien emaitzak ez dira zabaldu. Induskatu diren hainbat aztarnategiri buruz ez dakigu ia ezer, ez baita horien berri eman argitalpen zientifikoetan, ezta gizartean hedatu ere. Helburuen eta lehentasunen atalean itzuliko gara berriro ere gai horretara.

Gure ustez, gainera, beste arazo larri bat dago. Lurralde Historikoen Legearen (LHL) ondorioz aldundietan ikusten dugun jarrera, hain zuzen. Lege horrek hainbat zirriborro izan zituen aurretik. Lehen zirriborroak foru-aldundiei eman zien kontserbazioaren eta birgaitzearen eskumen osoa, eta, hala zegoen, arkeologia-ondarearena. Hala ere, behin betiko testuak eskumen horiek murriztu egin zituen, legegileen borondatez. Gaur egun espresuki esan ohi da aldundiek dutela eskumena arkeologia-ondarearen kontserbazioari, birgaitzeari eta induskatzeari buruz gobernuak egiten dituen arauen garapenean eta betetzean.

Horrela, aldundiak eskumen 'esklusiboa' izatetik goitik datorren araua onartzera pasatu ziren, LHLak gobernuari eman baitzion arau batzuk emateko gaitasuna. Gainera, LHLak ez zuen babesik aipatzen eta, horri dagokionez, gobernuak hartu zituen eskumen guztiak eskusiboki. Horregatik, Ondarearen Legea garatu zen.

LHLaren ondoren, Euskal Kulturaren Ondarearen Legea etorri zen. Hasieratik, Ondarearen Zentroa sortzeko ideia kontuan hartu zuen, hain zuzen, arauak egiteko eta kultura-ondarearekin lotutako lan oro koordinatzeko. Lan hori zaila izan da eta zaila izaten jarraitzen du arlo batzuetan, gobernuak sortu aurretik aldundiak baitzeuden, eta badirudi ezin dutela araudi komuna onartu.

Dena den, gure ustez, Ondarearen Legeak eskumen dezente murriztu zizkien. Induskatze-baimenetan izan ezik, ezin dute material arkeologikoen kudeaketan esku hartu, ezta nola babestu behar den eta babes-erregimenak zein diren dagokionarekin lotutako gaietan ere.

Laburbilduz, Ondarearen Zentroak (legeak ematen dizkion eskumenen ondorioz) badu zentralizatzeko eta herrialde osoarentzako ekintza-lerro komun batzuk garatzeko borondatea. Bestalde, bi legeak (LHL eta OL) aplikatzerakoan zalantzarik izanez gero, Ondarearen Legea nagusituko da berriagoa delako.

4. HELBURUAK ETA LEHENTASUNAK

Gure ustez, helburuek eta lehentasunek hiru puntu izan behar dituzte kontuan:

- Kudeaketa arkeologikoa
- Esku-hartze arkeologikoa
- Emaitzak hedatzea

eta hori arrazoi simple batengatik. Kudeaketak, esku-hartzeak ez bezala, ez du eragin zuzenik ondasunetan. Bestetik, esku-hartzeak ez luke bere funtzioa beteko emaitzak zabalduko ez balira.

Kudeaketa arkeologikoa.

Aurreko atalean azaldutako guztitik ondorio hau ateratzen da: Kultura Ondarearen Zentroaren lana sustatzeak duen garrantzia.

Komeniko litzateke are gehiago ezagutaraztea, batez ere udaletan, zeren eta haiekin ditugun harremanak direla-eta ikusten dugu ez dutela behar bezala ezagutzen. Funtsezkoa da udalak inplikatzeko ondarea babes dezaten. Legeak eskatzen du (4.2 artikulua). Inplikazio hori azpimarratzen dugu, udalek baitaude ondare higiezinetik hurbilen.

Ondarearen Zentroa eta haren funtzioak ondorengo hauei ezagutarazi behar zaizkie: lurralde-antolamenduarekin zerikusia duten profesionalen, ingurumen-inpaktuari buruzko ikerketak egiten dituztenei, azpiegitura-lanak egiten dituzten enpresei eta nola edo hala lurtean eragina duten guztiei. Oro har, herritarrei jakinarazi behar zaie –gero eta kontzientzia handiagoa baitute iragana kontserbatzeari dagokionez (turismo kulturala zabaltzearen ondorioz)– zentro horretan egiten den babes-lana ezagutzeko, balioa emateko eta Lurtean ere lan hori egin behar dela jabetzeko.

Sustatze horrekin batera, material arkeologikoen kudeaketa bateratzeko beharra dago. Izan ere, badirudi arazo-iturri dela Ondarearen Legearen aurretik bi museo egotea (Bilbon eta Gasteizen) eta gaur egun Eusko Jaurlaritzarenak diren material arkeologikoak haietan gordetzea.

Behin eta berriro errepikatu dugu aztarnategiak eta materialak katalogatu eta inbentariatu egin behar direla. Egia da, ordea, ezagutzen ez dena ezin dela babestu.

Hori dela eta, material arkeologikoen kudeaketa bateratzeko honako hau hartu behar da kontuan:

- Material arkeologikoen gordailu-zentroak eta haien funtzionamendua erregularizatzea Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan
- Inbentarioetako datuen egitura homogeneizatzea
- Material higigarriak eta higiezinak katalogatzeko metodologia homogeneizatzea.
- Hainbat inbentariotako irudiak modu normalizatuan sartzea
- Katalogoak eta inbentarioak modu bateratuan informatizatzea
- Materialak tokiz aldatzeko gaia (hainbat helburutarako: ikerketa, birgaitzea, erakusketa) erregularizatzea, gordailu-zentroetako irteera eta sarrerako aktak homogeneizatuz
- Akta horiek informatizatzea, kontrol-egoera eta materialen egoera eta erabilgarritasuna une jakin batean zein den jakiteko.

Hala ere, hori guztia ez da nahikoa. Hondatzeko arriskuan dagoen aztarnategi batek egoera horretan jarraituko du katalogo informatizatu batean sartuta egonda ere. Ezinbestekoa da araudia aplikatzea. Babes-erregimenak hor daude, dagozkien zigorrekin. Baina ezinbestekoa da araudi hori gizar-teari behar bezala ezagutaraztea, bereziki, lehen aipatutako eragileei, lur-rean eragina duten subjektu nagusiak baitira.

Kudeaketaren barruan esku-hartze arkeologikoetan aplikatzeko araudia badago, baina kasu askotan ez da praktikan jartzen. Ikusi besterik ez dago argitaratu gabe dauden eta ia ezagutzen ez ditugun esku-hartze arkeologiko pila (ikus beherago).

Esku-hartze arkeologikoa

Esku-hartze arkeologikoan arlo gehiago sartzen diren arren, gure arreta, batetik, indusketa arkeologiko sistematikoetan eta programatuetan eta, bestetik, larrialdiko esku-hartzeetan jarriko dugu, horiek baitira ohikoenak. Esku-hartze horietarako baimena aldundiek ematen dute.

Indusketa sistematikoak.

Lehen kasuan ugaritze nabarmena ikusten dugu, eta, sarritan, atomizatua. Uste dugu esku-hartze horiek guztiak ikerketa-proiektu handietan sartu behar direla, alde aurretiko planteamenduekin, eduki zientifiko zehatzekin eta ongi diseinatuekin, haiengandik espero den ezagutza historikoa eman dezaten. Ez da nahikoa toki batean edo bestean –dela kobazuloa, dolmena, ermita edo itsasoaren hondoa– egon daitekeenari buruz jakin-mina izatea. Ez litzateke utzi behar esku-hartze guratsuak egiten, gure ezagutza historikoa handitzen ez dutenak eta aztarnategiaren edo monumentuaren kontserbazioa bermatzen ez dutenak.

Proiektu horiek ikerketa-zentroekin lotuta joan behar dute, adibidez, unibertsitateko sail bat, museo bat edo ospe handiko zientzia-elkarte bat. Horregatik, beharrezkoa da administrazioaren –gure kasuan, hainbeste aldiz aipatutako Ondarearen Zentroa– eta erakunde zientifikoaren arteko lankidetzak.

Zaindu egin behar da indusketa-materialen ondorengo tratamendua, haien gordailatzea eta ikertzea. Beharrezkoa da jabetzea material horien ikerketa gaur egun konplexua eta garestia dela eta hainbat jakintza-alarretako adituen taldea behar duela. Orain dela hainbat urte esan nuen bezala (Altuna 1978) “gaur egun historiaurreko ikerketan (arkeologikoetan alegia) adituen beharra dago. Aditu bakoitzak alderdi bat aztertzen du, bakoitzak bere metodologiarekin. Industriako aditutik hasi eta isotopo erradiaktiboaren bidez maila baten datazio absolutua ematen duen fisikariarengaino, antropologoa, paleontologoa, palinologoa, sedimentologoa eta matematikari-estadista barne (garrantzitsuenak aipatzearen), guztiak dira beharrezkoak herri baten iragana benetan ikertu nahi bada”. Garbi dago azken urteotan hainbat jakintza-alarretako adituen taldea zabaldu egin dela, aztarnategiak eta hango materialak aztertzeko garrantzi handia duten espezialitate berriak sortu baitira. Laburbilduz, badira hamarkada batzuk aztarnategiak ulertzeko modua aldatu zela, jada ez baitira bertara joan eta objektu bitxiak lortzeko meatze-mota bat soilik.

Indusketa egindakoan, aztarnategiaren babesaz arduratu behar da, nahiz monumentu bat nahiz lurreko aztarnategia izan (egiturak, profil estratigrafikoak...) eta hura babestea, sendotzea, birgaitzea edo kontserbatzea alde zuzeneko proiektuaren barruan zehaztu behar da.

Hemen esan beharra dago aztarnategietarako eta suposizio horiek kontuan hartzeko aldundiak ematen dituen diru-laguntzak oso urriak direla.

Larrialdiko indusketak

Kasu honetan arazoa are larriagoa da. Hirigune historikoetako lanen ondorioz eta harrobi, errepide eta beste azpiegitura batzuen ondorioz, larrialdiko indusketak ugaritu egin dira eta horrek ‘arkeologia profesionalerako’⁴ atea ireki du. Langabezia dauden arkeologoen heldu diote lan horri eta esku-hartzeek hutsune handiak dituzte askotan.

Arkeologo horietako askori diruaren truke lan egitea interesatzen zaie, eta hori bidezkoa ere bada; baina horrek berak baldintzatzen du jarduera –honda zitekeena zaintzeko edo ezagutzeko jarduera–, premiazko lan baten mendean geratzen baita. Izan ere:

- Lan horretako kontratazioa sarritan ondare-ondasunean parte hartzen duten enpresek egiten dute. Txosten ‘biguna’ egitea interesatzen zaie ondasunak sortzen duen oztopoa kentzeko, ahalik eta konplikazio gutxienekin. Arkeologoak badaki bere txostena zorrotza bada, enpresa horrek ez duela hurrengoan kontratatuko.
- Esku-hartzea diruz ordaintzen da, baina, oro har, hor ez da sartzen materiala garbitzea, siglatzea, ordenatzea eta inbentariatzea. Horregatik, pilatzen joaten da, dagokion gordailu-zentroan behar bezala gorde gabe.
- Eta noski, jasotzen den diru-kopuru hori ez da inoiz izaten lortutako materiala ikerketzeko eta emaitzak argitaratzeko eta hedatzeko adinakoa, salbuespen bakar batekin: enpresak marketinerako erabil dezakeen gauza ikusgarria aurkitzea.

⁴ Gaur egun ‘profesional’ deitzen zaio sarritan, ez trebetasunez egiten den jarduerari (zientzia, arte edo lanbide batean aritzea edo hura erakustea), baizik eta diruaren truke egiten den jarduerari.

- Ondorioz, arkeologo 'profesional' horrek nahiago du larrialdiko indusketa berri batera joatea diruaren truke, lehendik induskatutakoa kobratu gabe aztertzea baino.

Horregatik, esku-hartzearen emaitzak sarritan txosten 'bigunen' bidez ezagutarazten dira. Txosten horiek ez dira oso adierazgarriak izaten eta ondarea erraz hondatzen uzten dute. Materialak aztertu gabe pilatzen dira, ez da sortzen horretarako hainbat jakintza-alorretako adituen talderik, ez da agertzen argitalpen zientifikorik eta are gutxiago egiten da hedatze-lanik, ondareak bete behar duen xede soziala ere bete dezan(ere bete beharrekoa).

Hori dela eta, dagokion administrazioak bermatu behar du esku-hartzeak behar bezala egiten direla, programatutako indusketak egiten diren bezala. Esku hartu aurretik ondareari buruzko dokumentazio guztia eduki behar da. Bereziki, arretaz jokatu behar da desagertuko diren ebidentzia guztiekin, eta esku-hartzetik lortutako informazio guztia behar bezala artxibatu behar da, gero erabili ahal izateko.

Azkenik, esku-hartze jakinetan gertatzen diren gehiegikeriak zuzendu behar dira, adibidez, lagin bidezko prospekzioak, horiek amateur-talde batzuk egiten baitituzte. Talde horiek oso baliagarriak dira aztarnategi berriak aurkitzeko, baina, sarritan, gehiegizko emozioak bultzaturik, lagin handiegia ateratzen dute eta material ugari lortzen dute. Material hori, ordea, prestatutako jendeak atera beharko luke, eta ez amateurrek. Laginketa prospekzioaren osagarria da eta aztarnategi baten presentzia egiaztatzeraz zuzenduta dago. Lehen ebidentzia arkeologikoak lortzen direnean, gelditu egin behar da eta informazioa aztarnategien katalogora pasatu behar da. Horren inguruan proiektu arkeologiko bat sortzen denean, indusketa egingo da, arestian aipatu dugun moduan.

Batzuetan, prospekzioa egin duenak aurkitutakoa induska dezaten nahi izaten du, eta aurkikuntzaren indusketa-lanak nahi bezain azkar hasten ez direnez, laginketa behar baino gehiago sakontzen eta luzatzen du. Horren adibide gisa Gipuzkoako Salsamendi IV aztarnategia aipatuko dugu. Hor prospekzio-egileek 498 (!) elementu arkeologiko aurkitu dituzte. Laginketa askoz ere lehenago gelditu behar zen. Ikus dezagun zer dioen legeak: "Prospekzioa laginketekin: espazio mugatu batean lurra erauztea da, toki horretan aztarnategi arkeologikorik dagoen egiaztatzeko. Jarduera hori amaitutzat emango da lehen ebidentzia arkeologikoak agertzean".

Emaitzak hedatzea

Lehen esandakotik, ondorio hau ateratzen da: emaitzak argitaratzeak duen garrantzia. Hainbat jakintza-alorretako ikerketak monografia bat egin behar du komunitate zientifikoari bere ekarpena azaltzeko eta, aldi berean, posible izan behar du hari buruz iritzia ematea, onartzea eta kritikatzeta. Argitalpenik gabe amaitzen diren esku-hartze arkeologikoak hobbya besterik ez dira.

Tamalez, gure autonomia-erkidegoan duela 10 urte baino gehiago itxitako indusketa ugari ezagutzen ditugu eta oraindik ez dira behar bezala argitaratu. Gehienez, Arkeoikuska-ra bidaltzen diren txostenak eta indusketari buruzko artikulua laburren bat daude, baina ez esku-hartze arkeologiko guztietan egin behar den hainbat jakintza-alorretako argitalpen-lanik.

Egoera horrek ekarri beharko luke Kultura Saileko Arkeologiaren Aholku Batzordeetan hainbat aldiz esandakoa, alegia, ez zaiola aztarnategi berri bat induskatzeko baimenik eman behar aurreko edo azken aurreko indusketa behar bezala argitaratu ez duenari, ezta lehen induskatutako materialak zegokion epean eman ez dituenari ere. Indusketak egiteko baimenak emateko eskumena aldundiek dute, eta horiexek dira iradokizun horiek bete behar dituztenak.

Arkeoikuska aipatu dugunez, esan beharra dago argitalpen hori oso baliagarria dela, bai erkidegoko ikertzaileentzat, bai nazioarteko komunitate zientifikoarentzat. Arkeoikuska Eusko Jauriaritzako Kultura Sailak argitaratzen du eta Euskal Autonomia Erkidegoan urtero egiten diren esku-hartze arkeologikoak agertzen dira.

Hedapenak, ordea, ez du adituen mailan gelditu behar. Beharrezkoa da ondareak dagokion eginkizun soziala eta didaktikoa betetzea. Maila desberdinetan egin behar da dibulgazio-lana, eta dagokion gizartean zabaldu behar da, bereziki, gizarte horretako ikasleei. Gure autonomia-erkidegoan, hedatze-lan hori ereduazkoa da Arabako Museo Arkeologikoaren jardueran. Gauza bera esan behar da Gasteizko Santa Maria katedraleko jarduera arkeologikoa eta birgaitzea egiten ari diren eskaintza dibulgetzaile bikainari buruz.

Alabaina, hedatze-lan hori derrigorrezko hezkuntza-sistemako maila desberdinetako curriculumetan sartu behar da, historia eta natur zientzien programen barruan. Katalunian, ondarea jada oinarritzko irakaskuntza eta irakaskuntza ertainetan hedatzen da, Ondarearen Legeak (65. artikulua) hartara behartzen baititu. Irakaspen horiek ikasleen sentimenduetaraino iritsiko dira, beren kultura-ondasunekin, iraganarekin eta sustraiekin identifika daitezten, eta, ondorioz, ondarea arriskuan jartzen duten mehatxuetatik defenda dezaten.

Hedatze-lan hori hainbat baliabideren bidez egin daiteke (liburuak, testu-liburuak, dibulgazio-aldizkariak, bideoak, CD-ROMak, etab.) eta, bereziki, erakusketen eta museoen bidez. Horri buruz, hurrengo atalean hitz egingo dugu.

5. LERRO ESTRATEGIKOAK ETA EGIN BEHARREKO PROIEKTUAK

Orain arte esandakotik, hainbat estrategia azaldu dira, eta hemen berriro aipatzea, laburtzea eta, kasu batzuetan, zabaltzea nahi dugu.

- KOZ. Kultura Ondarearen Zentroa sustatzea. Alderdi hori nahikoa azpimarratu dugu 3. atalean eta ez dugu berriro horretaz hitz egingo.
- LPS. Lurraldeko Plan Sektorial osoa onartzea. Horri buruz ere hitz egin dugu 3. kapituluan, eta iruditzen zaigu ondarea kontserbatzeko funtsezko tresna arau-emailea dela. Besteak beste, udalak inplikatzeko dituen ondarea babes dezaten. Kontuan izan udalak direla ondarea hurbilen duten erakundeak.
- Eremu arkeologikoak. Eremu arkeologikoak izendatzeko prozesua azkartu egin behar litzateke⁵. Ustezko eremuak izendatuz ahalegina egin zen. Lan hori Gipuzkoako monumentu megalitikoaren izendapenarekin hasi zen, baina planak ez du aurrera jarraitu, eta jarraitu egin behar luke.

⁵ Izendapen horietan aztarnategitzat hartzen direnak sartzen dira, adibidez: kobazuloak, tumuluak, Erdi Aroko nekropoliak, gotortutako esparruak, etab.

- Araudia. Esku-hartze arkeologikoen araudia zorrotasun handiagok aplikatzea, bai esku-hartze sistematikoetan, bai larrialdikoetan, materialak ikertzea eta haiek argitaratzea behartuz. Araudi hori badago. EAeko material arkeologikoei eta paleontologikoei buruzko 1990eko araudia da, legetik eratorria.
- Hedatzea. Emaizak gizarteari jakinaraztea. Horretarako, lehen aipatutako bidez gain, ezinbestekoak dira erakusketak eta museoak (ikus behegaro).
- Finantziarioa. Lerro horiek gauza daitezten, finantziario publikoa behar da, % 1 kulturala barne. Gainera, komeni da ondare arkeologikoen elementu garrantzitsuak dauden leku batzuk jabetza publikokoak izatera pasatzea, bai zuzenean Eusko Jaurlaritzak eskuratuz, bai udalei haiek eskuratzen lagunduz, kasu batzuetan egin den bezala. Aldi berean, Ondarearen Legean aipatzen dena betez, neurri orekatzailer batzuk aplikatu beharko litzaizkieke ondare-ondasunak dauden lursailen jabeei, haientzat zama handia baitira.

Estrategia horiek La Valette-ko Hitzarmenaren 2. atalean zehazten dira.

Atal hau amaitzeko, euskal kulturaren ondarea Europan aurkezteak duen garrantzia aipatu nahi genuke. Arlo horretan hainbat aukera daude: Europako kultura-azoketan zuzenean parte-hartzea⁶, euskal kulturaren erakundeei Europako foro eta elkarte arkeologikoen berri ematea⁷ edo Europako Batasuneko Batzordearen ondarearen sustapen-programetan parte hartzea.

Europako programen adibide gisa aipatuko dugu Kulturako Zuzendaritza Nagusiaren CULTURE 2000 programa⁸. Programa horren barruan ondarearen sustapena sartzeko da eta, besteak beste, publikoak Europako herrien historia ezagutzeko du helburutzat. Ikerketa-programek ere (Ikerketarako Zuzendaritza Nagusiaren Esparru Programak) arlo horretako 'ekintza-lerroak' aurreikusten dituzte, esaterako, kultura-ondarea era digitalean gordetzea edo eduki kulturala edo zientifikoa duten bilduma digitaletarako sarbidea⁹.

Programa horien bidez, alde batetik, Europako lankidetzaren sareak sor daitezke eta, bestetik, EBn kultura-eremu bat sortzea susta daiteke, bai kultura-aniztasunagatik, bai herentzia komunagatik. Horrek Euskal Herriari, hain zuzen, kultura-ondarea Europan aurkezteko eta hedatzeko aukera emango lioke. Gainera, Europako fondoak diru-laguntza handiak ematen dituzte.

⁶ Adibidez, aurten Leipzig-en urriaren 30etik azaroaren 2ra arte ondarea babesteko egingo den Europako azoka

⁷ Adibide gisa, Europako elkarte arkeologiko hauek aipa daitezke: EAA, European Association of Archaeologists; edo Europa Nostra, Europako herrialdeen ondarearen federazioa, gobernu kanpoko 200 erakundek baino gehiagok osatua.

⁸ Programa horren iraupena 5 urtekoa da (2000-2004) eta 167 milioi euroko aurrekontua du. Aurten, kultura-ondarearen atalean, euskal erakundeen parte-hartzea hutsaren hurrengoa izan da. Atal guztiak kontuan izanik, diru-laguntza jaso duten 220 proiektu baino gehiago daude, eta horietatik bakarra da Euskadikoa.

⁹ Ekintza-lerro horren barnean, ISTren barruan aurreikusia, 'eskualdeko sarearen herentzia kulturalaren' proiektua sortu da.

Beraz, ekitaldi horietan parte hartzea izan liteke euskal kulturaren ondarea ezagutarazteko bideetako bat, bai eta ondarea babesten duten beste erakunde batzuegandik ikasteko aukera ere. Ondarearen Zentroari ekitaldi horien berri eman behar zaio, dela haietan zuzenean parte hartzeko, dela ondarea babesten aritzen diren beste euskal erakunde batzuei haien berri emateko. Europako programetarako proiektuak prestatzeko lan handia egin behar denez (bazkideak bilatzetik proiektua bera kudeatzeraino), beharrezkoa litzateke informazio-eta aholkularitza-mekanismo bat garatzea arlo horretan. Ondarearen Zentroak ondare arkeologikoari buruzko zerbitzu hori antola lezake, baina horretan aritzeko langileak beharko lirateke.

Europako beste eskualde batzuek, esaterako Alemaniako edo Austriako estatu federalek, gobernuko ministerioetako (edo departamenduetako) hainbat zentrotan, Europako arazoez arduratzen diren pertsonak dituzte eskualdeko gobernuaren antolakuntza-egituraren barnean, betiere, kanpoko edo Europako harremanetarako dituzten ministerioz edo idazkaritza nagusiz gain.

Proiektuak

Orain, proiektu bakan batzuk aztertuko ditugu, garrantzi handia izan baitezakete ondarearen hedapenean, hartaz jabetzeko eta, ondorioz, babesteko. Publikoak, oro har, ondarean esku hartu ez izanagatik, bada erabiltzaile eta ikusle, eta jarrera horien bidez trebatze-lana egin daiteke; horrenbestez, jendeak jakin behar du aztarnategi arkeologikoak herri bateko historiaren zati garrantzitsu baten lekuko esanguratsuak direla eta hura kontserbatzea eta ezagutzea funtsezkoa dela iragana topatzeko. Gure herria bereziki sentikorra da balio horiei dagokienez. Bereak balira bezala sentitzen ditu. Sentimendu hori emozioz eta zehaztasunez elikatu behar da.

Museoek, erakusketek eta aztarnategietako ekintza jakin batzuek bete ditzakete funtzio horiek.

Bereziki 70eko hamarkadatik hona museoak ulertzeko modua asko aldatu da, eta 'museoa' erakunde gisa bere ingurune sozialarekin lotzeko saioak egin dira, haren funtzio-beharretara egokituz. Horrenbestez, 'Jakintzaren tenplu ziren museoak' 'Tokikoa baloratzen museo' (horrelakoak dira Alemaniako 'Heimatmuseen' guztiak) izatera pasatu dira eta 'Ondarea kontserbatzeko museo' delakoekin uztartu. Horri buruzko bibliografia-pilo bat dago, baina gure ustez hau ez da hori laburtzeko toki aproposa. Horren gainean egon den eztabaida edozein dela ere, argi gelditu da museoaren indarra eta haiek duten hedapen-papera. Eta ez da harritzekoa, komunikabideak nagusi diren gure ingurune soziala kontuan hartzen badugu. Jar dezagun arreta Arkeologia Museoan eta bere adarretan, gure gizartearentzako proiektu gisa.

Arkeologia museoek bere ondasun arkeologikoak erabiltzen dituzte eta komunikazio-sistema batekin konbinatzen dituzte. Sistema hori neurri batean edo bestean konplexua da eta argumentuaren diskurtsoa osatzen du.

Gure autonomia-erkidegoan Arkeologia Museo bakarra dago, Gasteizkoa. Bilboko Euskal Arkeologia, Etnografia eta Kondaira Museoan, arkeologiari eskainitako aretoak daude¹⁰. Horietako bakoitzak dauden lurraldeko materialen laginak erakusten dituzte. Ez dago, ordea, herrialde osoa hartzen duen Euskal Arkeologiaren Museo Nazionalik. Proiektu horixe da, hain zuzen, Kultura Sailak kontuan hartu beharrekoa.

¹⁰ Iruñean Museo de Navarra dago, eta beste gauza askoren artean, bilduma arkeologiko batzuk jarri dituzte han. Baionan, Musée Basque tradizionala berritu dute (irizpideak eztabaidatzeko modukoak izan daitezke) eta ataletako bat etnografiari dagokio.

Dena den, museo hori egiteko, aurretik hiru puntu hartu behar dira kontuan: museo-mota, hartzten duen denbora-tartea eta kokalekua.

Museo-mota. Bi museo-mota proposa daitezke:

- Arkeologia Museoa: gure herriaren aspaldiko historia kontatzen du (batez ere, historiaurrea-Erdi Aroa), nagusiki objektu arkeologikoetan oinarrituz.
- Euskal Herriko Historia Museoa: gaur egun arteko historia kontatzen du, dokumentu arkeologikoetan, etnografikoetan, historikoetan eta hainbat dioramatan oinarrituz.

hauek dira lehenengo motako adibideak, orain dela gutxi sortutakoak edo aldatutakoak: Alacanteko Arkeologia Museoa, Altamirako museo berria eta, estatutik kanpo, Weimar edo Schleswig-eko Museo arkeologikoak (Alemanian). Altamirakoak historiaurreko arkeologia bakarrik hartzten du aintzat. Beste hiru museoak Erdi Aroa bitartekoak dira.

Bigarren motako adibide bat Bartzelonako Kataluniako Historia Museoa da. Museo horretan historia hauek kontatzen dira: Kataluniako historiaurrea, mundu iberiarra eta greko-erromatarra, Nazio baten sorrera Erdi Aroan, haren sendotzea, erakundeak, Felipe V.aren autonomia galtzea, ondorengo gorabeherak, bereziki frankismo-garaia, eta gaur egungo egoera. Bistakoa da museo horren helburua ondare arkeologikoa kontserbatzea eta babestea dela.

Bi museo-motak egon daitezke, noski, Bartzelonan bezala, aipatu Historiako Museoaren barruan Museo Arkeologikoa baitago.

Pertsonalki, lehenik Museo Arkeologikoa hautatu beharko litzatekeela uste dut, bigarrena etorkizunerako baztertu gabe. Izan ere, bien helburuak desberdinak dira, eta arkeologikoa da ondarearekin, hori babestearekin eta kontserbatzearekin zuzenean zerikusia duena.

Hartzten duen denbora-tartea

Normalean, arkeologia-museoetan historiaurrea, mundu klasikoa eta batzuetan Erdi Aroa sartzten dituzte.

Arabak museo berri bat eduki behar badu, pentsa daiteke mundu erromatarrak eta Erdi Aroak garrantzia handia izango dutela, aztarnategi erromatarrek (esaterako, Iruña) eta Erdi Arokoak (esaterako, Aldaieta) pisu handia baitute Arabako arkeologian eta, ondorioz, Euskal Herrikoan.

Beraz, guk proposatzen dugun museo nazionalak, batik bat, historiaurreko garaia hartu beharko luke aintzat.

Museoaren kokalekua

Badirudi Gipuzkoa kokaleku egokia izan litekeela:

- Gipuzkoan ez dago arkeologia-museorik, ezta historiaurreko eta antzinako material arkeologikoak dituen museorik ere.

- Gipuzkoako material paleolitikoaren aberastasuna, labar-artearen barne, beste bi lurraldeetan baino handiagoa da (egin diren prospekzioen eta indusketei esker). Arabak aberastasun handiagoa du zeramikari dagokionez, bereziki, Burdin Arokoan. Gipuzkoan, berriz, askoz ere megalito gehiago induskatu dira eta hor arreo-kopuru handia aurkitu da, Bizkaian aurkitutakoa gaindituz. Gainera, megalitoen barnean, gure autonomia-erkidegoan Gipuzkoan bakarrik aurkitu dira cromlechak. Argi dago museo nazionala izan behar badu, beste lurraldeetako elementu nagusiak ere hor egon beharko luketela, lehendik dagoena murriztu gabe.
- Europan gehien ezagutzen diren Euskal Herriko historiaurreko materialak Gipuzkoakoak dira, Munibe aldizkariaren bidez hedapen zabala izan baitute. Beste hainbat erakundeetako arkeologiako aldizkako 500 argitalpen ingururekin informazioa trukatzeko du Munibek eta urtero argitaratzen da etenik gabe 1949. urtetik.
- Gaur egun, gure lurraldeko lehen gune populatuaren aztarnategi bakarra (Irikaitz) Gipuzkoan dago.
- J. M. Barandiaranen landa-arkeologiaren jardura Euskal Herri osora zabaltzeko bazen ere, batez ere Gipuzkoan jardun zuen. Hor egin zituen indusketa-kanpaina gehienak.

Museo horretan aldizkako erakusketak aurkeztu behar lirateke, museo ororen berezko jardura gisa, eta beste museoekin lankidetzan aritu behar luke, Lekuko museoak barne. Gero eta Lekuko museo gehiago daude, tokiko arkeologiari balioa emateko.

Garrantzi berezia duen Lekuko museo horietako bat Ekaingo erreplikak izan behar luke. Gaur egun, erreplika hori oso fase aurreratuan dago. Erreferentzia izan nahi du haitzuloetako santutegietako erreplikaren arloan, eta hori lortzeko bidean dago. Zailtasun handiena finantzazioa da. Horretaz Zestoako Udala arduratu da orain arte, baina laguntzak jaso ditu Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailetik, Gipuzkoako Aldunditik, Europako Batasunetik, Gipuzkoako Aurrezki Kutxetatik, Euskadiko Kutxatik, etab. Horrelako proiektu batentzat, ordea, ez da nahikoa.

Bukatzear dagoen eraikin berria, sarbideen azpiegiturarako lursailen erosketa, bisitariarentzako aparkalekua eta erreplikaren gastuak proiektu nazionaltzat hartu behar lituzke Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak. Horixe izan da orain arteko erreplikaren kasua:

Lascaux-ekoa. Frantziako Kultura Ministerioak finantzatua
 Niaux-ekoa. Berdin, Ariège-ko Departamenduarekin batera
 Altamirakoa. Espainiako Hezkuntza eta Kultura Ministerioak eta Botin Fundazioak finantzatua.

Teverga-n (Asturias) antzeko proiektu bat dago eta Asturiariko Printzerriko Gobernuak finantzatzen du.

Ondarea hedatzearekin eta kontserbatzearekin zuzenean lotuta dauden beste proiektu batzuk ere badaude, esate baterako, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak finantzatuta Gipuzkoan megalitikoek dagokienez egiten ari dena, eta beste lurraldeetara ere zabaldu behar litzatekeena. Itxura batean badirudi gure megalitoen –horietako askok 4.000 urtetik gora daramate gure mendietan– ezaugarriak sendotasuna eta iraunkortasuna direla. Gezurra galanta! Gaur egun, aldiz, oso hauskorrak ageri dira, eta ikusi dugu azken urteotan, horietako dozena-erdi bat desagertu direla eta beste batzuek kalteak jasan dituztela.

Izan ere, gure mendietan potentzia handiko makinekin egiten diren hainbat lanek (basoen birlandaketak, mozketak, pistak eraikitzea, harrobien ustiaketa, etab.) arriskuan ipintzen dituzte megalito horiek. Suntsitu diren monumentuak ez dira nahita suntsitu, makina erabiltzen zuen pertsonaren ezjakintasunagatik baizik. Hark ez zekien txilarrez, otez edo sastrakaz estalita zeuden harri-pila haiek dolmena, tumulua edo cromlecha zirenik.

Hori jakinarazteko, beharrezkoa da lekua garbitzea eta seinaleak ipintzea. Horrela, bi funtzio lortzen dira:

- Lan horien aurrean monumentuak zaintzea
- Ondarea hedatzea mendizaleen eta handik pasatzen direnen artean, seinalean agertzen den testuaren bidez. Seinale horretan lekuaren izaera, funtzioa eta adina adierazten dira.

Aipatu proiektuarekin, 2001ean, 124 monumentu megalitiko garbitu eta seinalezatatu ziren Gipuzkoan. Halaber, jabeei, basozainei eta zur-enpresei horren esanahia azaldu zitzairen. Udalek ere parte hartzea lortu da, lehen esan bezala, udala ondaretik hurbilen dagoen erakundea baita.

2002an proiektu horrekin jarraitu da, eta espero da urte-amaierarako, gainerako 136 garbitzea eta seinalezatzea.

Proiektua amaitutzat emango da 2003an ibilbide-panelak instalatzean. Panel horiek eremu megalitiko guztien sarreran eta sarbideetan jarriko dira. Era berean, ondare-elementuak bisitatzeko liburuxka argitzaileak –ibilbideak dituztenak– argitaratu behar lirateke. Horrela, ondarearen gaineko trebakuntza eta hari buruzko hedapena areagotuko litzateke.

Proiektua beste bi lurraldeetara zabaldu behar litzateke, bereziki Bizkaira. Lurralde horretan monumentu horiek arrisku handian daude, hau da, uste dugu desagertzen ari direla edo hondatze-prozesu larrian daudela. Araban, eremu behe-etako (Arabako Lautada, Kuartangoko Harana, Errioxa) monumentu handiak ezagunak dira, eta ia gehienak turismorako seinalezatuta daude. Baina mendizerretan (Entzia, Badaia, Elgea..) Bizkaikoen antzeko egoeran daude.

Azkenik, megalito-kopuru handia duten eremuetan –adibidez, Aralar, Aizkorri, Ataun-Burunda, Elosua-Soraluze edo Entzia– parke arkeologikoak sor daitezke, lan honetako 2. atalean aipatutako Londresko eta La Valette-ko Hitzarmenetan zehazten den bezala.

BIBLIOGRAFIA

Altuna, J.

1978 Situación actual de las investigaciones arqueológicas en el País Vasco. *Eusko Ikaskuntza-Asamblea general, Estado actual de los estudios Vascos*, 159-176, Donostia.

1998 Las investigaciones prehistóricas en el País Vasco. *Revista Internacional de los Estudios Vascos* 43, 481-514.

Ballart, J. & Juan-Tresserras, J.

2002. *Gestión del patrimonio cultural*. Ed. Ariel. Barcelona.

Barandiaran, J. M.

1947. Monumenta Vasconum Antiqua. Prehistoria de Vizcaya. Un cuarto de siglo de investigaciones. *Ikuska* 1, 134-147

Barré, F.

1997 *L'Archéologie en questions*. Ministère Culture Communication. Association pour la Connaissance et la Mise en Valeur du Patrimoine.

Bill, J.

1998. Die Archäologische Denkmal in Schweiz. *Archäologisches Nachrichtenblatt* 3, 156-161

Carandini, A.

1997 *Historias en la tierra. Manual de excavación arqueológica*. Ed Crítica. Barcelona

Convention européenne pour la protection du patrimoine archéologique. Londres 6.V.1969.

www.coe.int

Convention européenne pour la protection du patrimoine archéologique (revisée). La Valette

16.I.1992. www.coe.int

Estrade, E.

2002. La gestión del Patrimonio arqueológico. *XIV Congreso de Estudios Vascos. Sección de Antropología. Eusko Ikaskuntza* (prentsan)

Plank, D.

1998. Die Archäologische Denkmal in Deutschland. *Archäologisches Nachrichtenblatt* 3, 145-150.

Querol, M. A. & Martínez diaz, B.

1996. *La gestión del Patrimonio Arqueológico en España*. Alianza Editorial. Madrid. 438 orr.

6. OINARRIZKO ERREFERENTZIAK

UNESCO

1990. ICOMOSen Arkeologia Ondarea Babesteari eta Kudeatzeari buruzko Gutuna. Lausanne.

EUROPAKO BATZORDEA

1969. Arkeologia Ondarea Babesteko Europako Hitzarmena. Londres.
www.coe.int

1992. Europako Arkeologia Ondarea Babesteko Europako Hitzarmena. LaValette (Malta). www.coe.int

EUROPAKO BATASUNA

1988. Europako Erkidegoko Arkitektura eta Arkeologia Ondarearen kontserbazioari buruzko Europako Parlamentuko Erabakia. (1988-12-5eko EEAO aldizkariko C 309/423-427)

ESPAINIAR ESTATUA

1985. Espainiako Ondare Historikoaren Legea (1985-06-29ko BOE, 155 zk.)

KATALUNIA

1993. Kataluniako Kultura Ondarearen Legea (1993-10-11ko DOG.C, 1807 zk.)

GALIZIA

1995. Galiziako Kultura Ondarea Arautzeko Legea (1995-11-8ko DOG, 214 zk.)

ANDALUZIA

1991. Andaluziako Autonomia Erkidegoko Ondare Historikoaren Legea (1991-07-13ko BOJA, 59 zk.)

NAFARROA

1986. Nafarroako Foru Erkidegoan indusketa eta prospekzio arkeologikoak egiteko baimenak ematen ematea arautzen duen Foru Dekretua (1986-10-13ko BON, 126 zk.)

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

1990. Euskal Kulturaren Ondarearen Legea (1990-08-6ko EHAA, 157 zk.)

1995. 281/1995 Dekretua, zeinaren bidez Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen den (1995-06-22 EHAA, 118 zk.)

1999. EAeko material arkeologikoei eta paleontologikoei buruzko araudia

Europako herrialdeetako legeriaren berri izateko, ikus:

1998. Archäologisches Nachrichtenblatt, 3. zk. Herrialde bakoitzari buruzko zenbait artikulu (besteak beste, Alemania, Frantzia, Suitza, Austria, Danimarka)

Frantziari dagokionez, lege honekin osatu behar da: Loi n° 2001-44 du 17-01-2001 relative à l'archéologie préventive.